

Bizkaiko



Dantzarien Biltzarra

BIZKAIKO DANTZARI EGUNA ELORRIO 2014 MAIATZAK 18



© kukuxumusu + bokart.com

Errebonbilloak

Bizkaiko Dantzarien Biltzarra



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Elorrioko udala



bbk

gizarte ekintza
obra social





MAIATZAK 18 Igandea

11:00etan Taldeen Kalejira.

11:30etan NIZETO URKIZU kaleko aparkalekuan Dantza Taldeen Ekitaldia

DANTZARI DANTZA

Agintariena, Zortzinangoa, Ezpata Joko Txikiak, Banangoa, Binangoa, Ezpata Joko Nagusia, Launangoa, Makil Jokoa, Txontxongiloa.

GIPUZKOAKO DANTZAK

Agurra, Makil Txiki eta Zinta dantza

JOLAS DANTZAK - TXIKIAK

Txulalai, Zapatain dantza, Xan Petrike dantza eta Esku dantza.

ELTZIEGOKO DANTZAK

Correcalles, La Danza, Cuatro Calles, Arbol, Jota

GORULARIAK

Domingiloa eta Arku dantza

DANTZARI ERTAINAK - TXIKIAK

Zazpi Jauziak, Antzina Pika eta Hegi

KAIXARRANKA

LARRAIN DANTZA

11:00etan ERMITAN: Folklore Azoka eta umeentzako Jolasak

17:00etan ERROMERIA DRINDOTS taldearekin Udaletxeko Plazan



Elorrioko udala



Dantzariok, ongi etorri Elorriora!

Maiatzaren 18rako zazpi jauzi baino ez dira falta. Gure kale zaharretan barreiatuko dituzue zapi, abarka, pololo, arku, zinta, ezpata eta txapelak.

Dantza dezagun guztiok, aska ditzagun gerriok gure arbasoen aztarnen artean eta batu gaitezen dantzatzuz.

Gure herria zain duzue Xan Petrikek tentsioak baztertzeke, Agintariarenaz gure beldurrak uxatzeko eta Banango eta Binangoaren txistu-doinuaz guztiok elkartzeko.

Jaldi guztiok plazara abarketak gastatu arte eta bete Elorrio kolorez, pozez eta euskaraz.

Txulalai!

Ana Otadui

Elorrioko Alkatea

ELORRIO 2014

Bizkaiko dantzarien urteko jai nagusia da, Bizkaiko Dantzarien Biltzarrean federatutako dantza taldeen topaketa eta bilerarako gunea.

Gutxi gorabehera, ehun bat taldek parte hartzen dute, eta hauek aurretik prestatutako dantzen egitaraua eskaintzea dute helburu, talde guztiek urtean zehar egiten duten prestaketa eta lanaren ahalegina biltzen duena.

Asko dira entseguak, prestaketa-egunak, dantzen errepertorioaren ikasketa,... etab. Guztia dantzariaren eguna batera eskain dezaten ezohiko neurriak dituen eskenatoki batean (futbol-zelaia), bertan dena ahalik eta hobekien atera dadin saiatzen dira, eta ondo egiteko ahalegina partaideek, bere adina edozein dela ere, erakusten duten gogoan islatzen da eta, gainera, taldeen prestaketa eta horietako bakoitzaren eta multzoaren kalitate maila agerian geratzen dira, kalitate handiko momentuak, bikainak, miresteko aukera izaten dugula.

Horretaz gain, gure folklorearen balioak eta garrantzia txikienei, gurasoei, zaleei eta jendeari oro har helarazteko ere balio du.

Urtero eskualde ezberdin bateko herri ezberdin batean egiteak, gainera, ekitaldi hau Bizkai osora eramatea ahalbidetzen du, eta dagoeneko lurralde osoan barrena ibili da.

Halaber, 25 urte baino gehiago hauetan, ikusi eta bizi dutenak asko izan direla, asko antolatzen parte hartu dutenak eta asko laguntzaileak ere kontuan hartu behar dugu.

Partaideek, interes eta erantzukizun handiz, bizitako giro honen barruan ere, zergatik ez esan, ospakizun eta festarako, dibertsio eta dantzarako tokirik ere badago, ekitaldi nagusiaren ostean, arratsaldean, egiten diren erromerietan ikus daitekeenez, bertan dantzariak ederki pasatzen dute oso giro onean.



Agintariena, Zortzinangoa, Ezpata Joko Txikia, Banangoa, Binangoa, Ezpata Joku Nagusia, Launangoa, Makil dantza, Txontxongiloa

Durangaldeko herrietan (Abadino, Berriz, Garai, Iurreta, Izurtza eta Mañarian) herriko jaiak hurreratzen direnean, gazteak Dantzari Dantza prestatzen hasten dira. Bezperan, zuhaitz bat jartzen dute enparantzan, Donienatxa izeneko arbola, eta azkeneko entsegua egiten dute. Jaietan, prozesioa edo kalejira egiten dute, agintariekin batera eta banderarekin, eta azkenean enparantzan aritzen dira dantzak. *Agintariena* deritzon dantzarekin hasten dira (agintariei agurra), herriko bandera airean harat-honat erabiliz. Ondorik, tartekatu egiten dituzte erremintarik gabeko dantzak (*Zortzinangoa*, *Banangoa*, *Binangoa* eta *Launangoa*) eta ezpatak edo makilak erabiltzen diren dantzak (*Ezpata Joko Txikia*, *Ezpata Joko Nagusia*, *Makil Jokoa*). Amaitzeko, ezpatak erabiltzen diren *Txontxongiloa* dantzatzen dute; dantza horretan, dantzarietako bat altxatu egiten dute, eta beste dantzariak haren inguruan ibiltzen dira, ekinean.

En los pueblos del Duranguesado (Abadino, Berriz, Garai, Iurreta, Izurtza y Mañaria), al acercarse las fiestas patronales, los jóvenes comienzan a preparar la Dantzari Dantza. La víspera colocan un árbol en la plaza, conocido con el nombre de Donienatxa, y realizan el último ensayo. Durante las fiestas realizan la procesión o pasacalles, junto a las autoridades y la bandera, para acabar bailando en la plaza. Comienzan con *Agintariena* o saludo a las autoridades, ondeando la bandera local. Seguidamente, intercalan diferentes números de danza sin herramienta - *Zortzinangoa* (de a ocho), *Banangoa* (de a uno), *Binangoa* (de a dos) y *Launangoa* (de a cuatro)- con los números en los que se usan espadas o palos -*Ezpata Joko Txikia*, *Ezpata Joko Nagusia*, *Makil Jokoa*-. Finalizan con *Txontxongiloa*, baile con espadas, donde uno de los dantzaris es alzado mientras los demás realizan una serie de evoluciones alrededor.



Agurra-Makil Txiki- Zinta dantza

Brokel dantza Gipuzkoako herri askotako jaietako dantza-sail garrantzitsuenetakoa da. Duela 200 urte baino lehenago, Brokel dantza osatzen zuten bederatzi dantza-joko aipatu zituen J.I. Iztuetak, eta horietan zenbait erreminta erabiltzen ziren: makilak (txikiak eta handiak), brokelak, zintak eta uztaiak. Dantzok gazteek jokatzen zituzten, une horretarako ondo jantzita; gazteok entseguak egin behar izaten zituzten, jaiak baino aski arinago, dantzok nahikoa zailak ziren-eta.

Batzuetan, dantzari-taldeak beste herri batzuetara joaten ziren dantzatzerara; horrela, badakigu 1858. urtean Bilbon dantzan jardun zuela "dantzen edo antzinako guduen Gipuzkoako konpartsa batek". Jatorriz, dantza horiek gizonezkoek jokatzen zituzten, baina zenbait hamarkadatik hona horietako batzuk –berbarako, gaur aurkezten ditugun hirurak– emakumezkoen erreperatorioan ere sartu dira.

La Brokel dantza es la serie de danzas más importante en las fiestas de muchos pueblos de Gipuzkoa. Hace más de 200 años, J.I. Iztueta hablaba de nueve números de danza que la componían, en los que se utilizaban diferentes herramientas: palos, tanto pequeños como grandes, broqueles, cintas, y aros. Todo ello realizado por jóvenes, bien vestidos para el momento, que habían de prepararse con bastante antelación por la dificultad de su ejecución.

A veces los grupos de danzantes se trasladaban para ofrecer sus danzas a otros lugares; así se sabe que en 1858 bailó en Bilbao una "comparsa guipuzcoana de baile o de batallas antiguas". En su origen estas danzas eran bailadas por hombres pero desde hace varias décadas algunas de ellas, como las tres que se presentan hoy, han sido incluidas en el repertorio femenino.



Txulalai, Zapatain dantza, Esku dantza eta Xan Petrike dantza

Txulalai gizarte-dantza bat da, eta dantza horretan taldeak onartzen duen adina dantzarik parte har dezake, neska izan zein mutil izan. San Blas bezperan dantzatzeko da Paganos herrixkan, eta hara Biasteriko eta inguruko lagunak joaten dira dantzariak ikustera.

Zapatain Dantza Lapurdin dantzatzeko da, inauterietan, eta zapatariaren ogibidea irudikatzen du; horrezaz gainera, jauzi bat ere sartzen da dantzaren barruan, eta bai jokoa bera ere. Joko hori kantatu ere egiten da.

Xan Petrike Dantza eta Esku Dantza Baztango bi "irri-dantza" dira. Baztango gazteek neguko egun luzeak arintzeko edo plazetako edota tabernetako bileretan jostatzeko baliatzen zituzten bi dantzok.

Txulalai es una danza social en la que pueden participar cuantos danzantes sean admitidos por el corro, sean chicos o chicas. Se baila la víspera de San Blas en la aldea de Páganos a donde acuden en Romería vecinos de Laguardia y alrededores.

Zapatain dantza se interpreta por carnaval en Lapurdi, y representa el oficio de zapatero, incluyendo un Jauzi y el propio juego, que también se canta.

Xan Petrike dantza y Esku dantza son dos danzas juego o "irridantza" del Baztan. Ambas servían a los jóvenes baztaneses para entretener las largas veladas de invierno o las reuniones en plazas y tabernas.

ELORRIO



SAN AGUSTIN AUZOA



BERRIOZABALETA AUZOA
LEKERIKETA AUZOA
MIÑOTA AUZOA
LEIZ AUZOA

SAN AGUSTIN AUZOA



Atxondo
Abadiño
Durango
Bilbao



Ctro. de
Proceso
de Datos

Plataforma

Oficinas

INFORMAZIOA


E ERROMERIA	Autibus geltokia	CR Landetxea
S SALMENTAGUNEA	P Aparkalekua	H Hotela
D DANTZAGUNEA	Turismo ibilbidea / Audiogida	WC Komunak
B1 BAZKALGUNEA (Erreserbatuta)	Gasolindegia	Anbulantziak
B2 BAZKALGUNEA (Norberak ekarria)	Nekazalturismoa	i Turismo bulegoa

callejero
neXar
kale-planoa
www.nekar.com

Buber Saria Tresna informatikorik onena.
Premio Buber Mejor herramienta informática.

Durango
Bilbao

Beasain
Donostia



ARGIÑETAKO
NEKROPOLIA
MENDRAKA AUZOA
GAZTAÑETA AUZOA



ALDAPE AUZOA
BERRIO AUZOA
Elgeta
Eibar
Bergara

IGURIA AUZOA
URKIZUARAN AUZOA
Kanpanzar
Arrasate-Mondragón

P
Autobusak

CR



Correcales, La Danza, Cuatro Calles, Arbol y Jota

Eltziegoko dantzak Plazako Ama Birjinaren jaiegunean dantzaten ziren, hau da, irailaren 8an; hala ere, antzina uztailaren bian ere jokaten ziren, Santa Isabel egunean.

Bi lerrotan jartzen diren zortzi neskaren taldea aritzen da dantzan, eta neskok zenbait mugimendu eta figura koreografiko gauzatzen dituzte. Horiekin batera katximorroak ere jarduten du, eta haren lana dantzarien “zuzendariarena” egitea da. Historiari begira, gizonezkoek jarduten zuten dantzan, baina hogeigarren gizaldiko berrogeiko hamarkadan emakumezkoek berreskuratu zituzten, eta dantzoi eutsi; hala ere, lantzean behin mutilak ere aritzen dira dantzan.

Las danzas de Elciego se bailan coincidiendo con la festividad de la Virgen de la Plaza, el 8 de septiembre, si bien antiguamente se ejecutaban también el 2 de julio, festividad de Santa Isabel.

Las bailan un grupo de ocho chicas en dos filas que realizan diversas mudanzas y figuras coreográficas. Participa asimismo el Cachimorro, que cumple una función de “director” de la danza. Históricamente han sido realizadas por hombres, pero en la década de los años 40 del siglo pasado fueron las mujeres quienes las recuperaron y mantuvieron, siendo esporádicamente interpretadas con acompañamiento de chicos.



Arku dantza eta Domingiloa

Gorulariak deritzon dantzak liho-lana irudikatzen duen estampa bat du eta bi dantza: *Arku dantza* eta *Domingiloa*. Aurkitu diren idazkietan adierazten denez, Arku Dantza 1828. urtean dantzatu zuten neskek Erregeren aurrean, eta Domingiloa mutilek Gorpuzti eguneko prozesioan jokatu zuten dantza bat izan zen. Hala ere, 1886. urtean Durangon Euskal Jaiak ospatu zirenetik aurrera, aurreko estampa sartu zen eta dantzetan gizonezkoek eta emakumezkoek parte hartzen zuten.

Joan den gizaldiko hirurogeita hamarreko urteetatik aurrera, dantza-multzo hori Iurretako jai egitarauaren barruan sartu zuten, eta harrez gero urtero dantzatzen dira San Migel jaietan.

Gorulariak consta de una estampa, que representa el trabajo sobre el lino, y de dos danzas, *Arku dantza* y *Dominguillo*. Según los escritos encontrados, la Arku dantza fue bailada por las chicas ante el rey en el año 1828 y el Dominguillo era una danza que los chicos habían realizado en la procesión del Corpus. Sin embargo, a partir de la celebración de las Fiestas Euskaras de Durango de 1886, se incluyó la estampa previa y las danzas se convirtieron en mixtas.

Desde los años 70 del siglo pasado, el conjunto se incorporó al programa festivo de Iurreta, donde se representa anualmente en las fiestas de San Miguel.



Zazpi Jauziak – Aintzina Pika - Hegi

Batik bat Iparraldean dantzatzen diren *jauziek* eta Baztango mutil-dantzek gainerako dantzetatik garbi asko bereizten dituzten ezaugarri bereziak dituzte. Korroan dantzatzen dira, eta korroaren erdialdea izaten da hain zuzen ere dantzariak lerratzeko gunek, haren inguruan ibiltzen baitira biraka, beren artean inolako loturarik izateke.

Badakigu antzina-antzinako dantzak direna. Horiek guztiek oinarritzko pausoak dituzte, eta pausook konbinatu egiten dira, dantza ezberdinak eratze aldera.

Los *jauziak*, bailados principalmente en Iparralde, junto con las mutil-dantzak, del Baztan, tienen unas características particulares que las distinguen perfectamente de las demás danzas. Se bailan en corro, donde el centro del mismo es el eje alrededor del cual se desplazan los dantzaris, sin ningún enlace entre ellos.

Se sabe que se trata de danzas muy antiguas. Todas ellas cuentan con unos pasos básicos comunes que se combinan de diferentes formas dando lugar así a diferentes danzas.



Kaixarrankak Lekeitioko Arrantzaleen Kofradiako maiordomoak izendatu eta kargu hartzeko antzina-antzinako erritualetan du jatorria; hain justu, erritual horiek XVI. mendearen amaieratik aipatzen dira herriko zenbait dokumentutan.

Egun, ekainaren 29an prozesioa egiten da portuan zehar, harik eta San Pedroren irudia jarriarik dagoen tokira iritsi arte. Haren aurrean, frak beltzez jantzirik, xistera buruan duela eta eskuan santuaren sinboloak dituen bandera darioala, gizon bat Kofradiaren kontuak gordetzen diren kaxaren gainean dantzan aritzen da; ondoren, berriro jarduten du kofradiaburuaren etxearen aurrean eta, azkenik, herriko plazan. Kaxa hori zortzi arrantzalek eroaten dute, uneoro.

La Kaixarranka tiene su origen en los antiquísimos rituales de nombramiento y toma de posesión de los mayordomos de la Cofradía de Pescadores de Lekeitio, acerca de los que existen referencias desde finales del siglo XVI.

Actualmente, el 29 de junio se realiza una procesión por el puerto hasta el lugar donde está depositada la imagen de San Pedro. Ante ella, un hombre ataviado con frac, chistera y que lleva en la mano una bandera adornada con los atributos del santo, baila sobre el arca que guarda las cuentas de la Cofradía; después repite la danza delante de la casa del presidente de la misma y en la plaza del pueblo. El arca es portada en todo momento por ocho pescadores.



Alfontso XIII.a 1903an Lizarrara etortzekoa zela-eta, *Larrain Dantza* eszenaratzeko musika-testuak transkribatu, batu eta egituratzeko eta ondorik haien koreografia eratzeko agindua jaso zuen Demetrio Romano dultzaineroak. Ordutik aurrera, beti dantzatu izan da Lizarrako jaietan, eta gainera, gaur egun Euskal Herrian zehar hedatuenik dagoen gizarte-dantza bilakatu da. "Suite" honek zenbait atal ditu: Hasierako Kalejira, Katea, Fandangoa, Balsa, Jota Zaharra, Bolerak eta Amaierako Kalejira.

Con motivo de la llegada del Rey Alfonso XIII a Estella en 1903, el gaitero Demetrio Romano recibió el encargo de transcribir, agrupar y estructurar los textos musicales y darles forma coreográfica para poner en escena el *Baile de la Era* o *Larrain dantza*. Desde entonces no ha dejado de interpretarse en las fiestas patronales de Estella y hoy en día es, además, una de las danzas sociales más extendidas por toda Euskal Herria. Esta "suite" está formada por varias partes: Pasacalles, Cadena, Fandango, Vals, Jota Vieja, Bolerak y Corrida Final.

DANTZA IKASTAROA **CURSILLO DE DANZAS POPULARES**

Oinarrizko maila / Nivel Básico

Erromerietako dantzak / danzas de romeria

Dantza plaza / danzas de plaza

Jota – Arin arin

Larrain dantza / Baile de la Era

GAITA IKASTAROA **CURSILLO DE GAITA**

TRIKITRIXA IKASTAROA **CURSILLO DE TRIKITIXA**

PERKUSIO IKASTAROA **CURSILLO DE PERCUSION**

Txalaparta, Panderoa, Atabala, Danborra...

Ordutegi malguak / Horarios flexibles

Informazio gehiago / Más información

Bizkaiko  **Dantzarien** Biltzarra

Luis Briñas 31, 48013 Bilbao Tf/Fax: 94 441.85.63 – 649.647.483

www.dantzanet.net - dantzanet@gmail.com



Bizkaiko
Dantzarien
Biltzarra



Elorriko udala



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Durangaldeko Adiskideen



noticias

GRUPO TALDEA

bbk

gizarte ekintza
obra social

